

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektuak ondo funtzionatzeko hainbat elementu garrantzitsu behar ditugu. Alde batetik, baliabide fisikoak ezinbestekoak dira, hala nola lokala, sukaldeko makinak, elikagaiak eta makronutrientek kalkulatzeko ordenagailuak. Bestetik, baliabide intelektualak ere behar ditugu, adibidez kalkulu-sistema, menu osasungarria eta enpresaren irudia. Giza baliabideak funtsezkoak dira, sukaldariak eta zerbitzariak behar direlako. Gainera, nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzak dituzten pertsonak behar ditugu. Azkenik, finantza-baliabideak beharrezkoak dira hasierako gastuak eta soldatak ordaintzeko. Baliabide horiei esker, gure jatetxeak bezeroen beharrak asetuko ditu.